

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2013ko 4. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2013ko azken hiruhilekoan, EAEko ekonomiak suspertzeko prozesuari jarraipena eman zion, baina ezin izan zuen urte arteko tasa negatiboak atzean utzi. Zehazkiago adierazita, %-0,3ko balioa jaso zuen, hirugarren hiruhilekoan izan zuena baino zortzi hamarren hobe delarik. Hiruhileko arteko terminoetan, azken bi urte eta erdiko lehen gehikuntza lortu zen, %0,3koa. Hazkunde erritmo hori espainiar ekonomiaren eta Eurogunearenaren antzekoa da, baina urte arteko tasan bi lurralde horiek tasa hobeak lortu zituzten, bereziki Europaren kasuan (hurrenez hurren, %-0,2 eta %0,5).

EAEko ekonomiak laugarren hiruhilekoan izan zuen hobekuntzaren oinarrian, batez ere, barne eskariaren narriadura txikiago bat dago, urte arteko jaitsiera %-1,8tik %-0,5era murriztu zuelako. Barne eskariaren bi osagai nagusiek lagundu zuten hobekuntza erlatibo horretan, baina bereziki deigarria da kapital eraketa gordinaren bilakaera, hain zuzen ere aurreko urteetan beharakada handiena ezagutu zuen atala izan zelako. Zehatz-mehatz, inbertsio osoaren emaitza hirugarren hiruhilekoko %-3,8tik urte amaierako %-0,3ra igaro zen. Lehen unean ekipamendurako inbertsioak suspertzeko urratsak eman bazituen ere, une hauetan bi osagaiek hobetu dituzte beren aldakuntza erritmoak (ekipamendurakoak %0,1eko urte artekoa jaso du eta gainontzekoak, berriz, %-0,5).

Azken kontsumoko gastuak zazpi hamarreneko hobekuntza lortu zuen eta %-0,6an kokatu zuen urte arteko tasa. Gorakada osoa familien portaeratik iritsi zen, aurreko urteko kontsumoa ia berdindu baitzuten (%-0,1), aurreko hiruhilekoetako jaitsiera garrantzitsuen ondoren. Egonkortze horren atzean, igurikimene hobekuntza, enplegu galera txikiago bat eta finantza aberastasunaren igoera daude, higiezinaren aberastasuna berriro murriztu zen arren. Administrazio publikoen kontsumoa, ordea, %2,3 gutxitu zen urte arteko tasan, serie historiko osoaren jaitsierarik handiena delarik. Datu horrek agerian uzten ditu defizit publikoa kontrolatzeko ematen ari diren urratsak.

Kanpo eskariak beste ekarpen positibo bat egin zion EAEko barne produktu gordinaren hazkunderari, Ekonomia Zuzendaritzak bi hamarrenetan kalkulatu duena, hots, hirugarren hiruhilekoko zortzi hamarrenetik askoz beherago. Iazko azken laurdenean, bai esportazioek bai inportazioek hazkunde nominalaren eta errearen erritmoa leundu zuten. Hala ere, ingurune herrialdeetan finkatzen ari den susperraldiak pentsarazten du zenbateko horiek berriro handituko direla datozen hiruhilekoetan.

Ekoizpenaren ikuspegitik, nekazaritzaz bestelako sektore guztiek lortu duten hobekuntza azpimarratu behar da, nahiz eta haietako inork ez duen hazkunde positiborik eskuratu. Industriaren kasuan, laugarren hiruhilekoko bultzadak iazko balio erantsia berdintzeko balio izan du eta eraikuntzan urte arteko jaitziera %-1,2ra mugatu zen, aurreko hiruhilekoko %-5,2aren ondoren. Lau puntuko hobekuntza horrek iradokitzen du arlo horren jarduera egonkortzen ari dela, sei urtez jarraian beherakadak pilatu ondoren. Zerbitzuek ere bilakaera ona izan zuten eta urte arteko tasa %-0,1ean kokatu zuten. Sektore horretako adarrek portaera kontrajarriak erakutsi zuten. Izan ere, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituenak %0,9 areagotu zuen balio erantsia, merkataritza, ostalaritza eta garraioarenak %-0,6ra leundu zuen jaitziera eta gainontzeko zerbitzuek emaitza okertu zuten (%-0,4).

BPGaren murrizketa txikiagoarekin batera enpleguaren narriadura leunagoa etorri zen, hirugarren hiruhilekoko %-2,0tik iazko azken epealdiko %-1,0ra igaro baitzen. Tasa horrek esan nahi du ia 9.000 lanpostu galdu direla 2012ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Zerbitzuek bakarrik lortu zuten enplegu garbirik sortzea, baina lortu zuten kopurua (938 lanpostu) oso mugatua da. Hala industriak nola eraikuntzak nabarmen gutxitu zuten beren enplegu galera, baina oraindik urte arteko jaitziera garrantzitsuak izan zituzten (%-2,9 eta %-6,6, hurrenez hurren).

Oro har, prezioek aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuten moteltzeko joerari segida eman zioten eta BPGaren deflatoea %1,2 igo zen, hala laugarren hiruhilekoan nola urteko batez bestean. Kontsumo pribatuaren deflatoea balio horretatik nabarmen beherago kokatu zen arren (%0,3 igo zen), kontsumo publikoarena %6,6 bizkortu zen, funtzionarioen aparteko ordainketa pagatu ez zen 2012ko urtearekin alderatzen delako. KPI indizeak ere oso igoera apala erakutsi zuen azken hilekoetan, %0,6koa, eta are apalagoa izan zitekeen pasa den uztailean botiken koordainketa ezarri izan ez balitz. Azken hilekoetan ez da alderik hauteman azpiko inflazioaren eta hondar inflazioaren artean, aurtengo otsailean izan ezik.


Eskura dauden azken datuak aurreikuspen eredian sartu ondoren, oso gutxi aldatu da datorren hiruhilekoetarako aurreikusten den eszenategi makroekonomikoa. Izan ere, 2014 osorako aurreikuspena %1,0an kokatu da. Hazkunde horretan, barne eskariaren susperraldiak paper garrantzitsu bat jokatu du, kanpo arloak BPGari ekarpen nabarmena egingo dion arren. Eskaintzaren ikuspegitik, bai industriak bai zerbitzuek indarra hartuko dute hiruhileko hiruhileko, hurrenez hurren %1,4an eta %1,1ean kokatu arte. Jarduera erritmoa suspertuko bada ere, urteko batez bestekoan ez da aurreikusten enplegu garbiren sorrerarik, baina ez da lanpostuen galerarik gertatuko, abenduan aurreikusten zen bezala.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2013ko laugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak begi bistako hobekuntza izan zuen, baina hazkunde erritmoa oraindik neurritsua izan zen. Hazkundearen dinamika ekonomia aurreratu gehienetan errotu zen, beste arrazoi batzuen artean, moneta politika egokituek, zama fiskal txikiagoak eta inflazio txikiak lagunduta. Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, portaera ezberdinagoak hauteman ziren, nahiz eta gehiengo handi batek ekonomiaren une gozoa baliatu zuen eta moteltze erritmoa leundu zuen.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Hain zuzen ere, Txina %7,7 hazi zen 2013ko azken laurdenean, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Bertako gobernuak esportazioetan eta inbertsioan oinarritutako eredu ekonomikoa aldatzeko eta kontsumo pribatuari pisu handiagoa emateko egin dituzten ahaleginek ez dute oraingoz fruiturik eman. Izan ere, barne kontsumoaren ahultasuna, inbertsioaren hedapen makala eta esportazioen erritmo txikiagoa daude erritmo galera horren atzean. Urteko balantzeak, berriz, hazkunde tasa bera erakutsi zuen, %7,7, gobernuaren helburua bi hamarrenetan gaindituz, nahiz eta azken hamalau urteko txikiena den. Azkenik, inflazioaren presioek beherantz egin zuten 2013ko azken hilekoetan eta 2014ko lehenengoetan, eta iazko urrian KPI indizeak %3,2 gainditu ondoren, abenduan eta aurtengo urtarrilean %2,5ean egonkortu zen.

AEBetan, hazkunde erritmoa bost hamarrenetan bizkortu zen eta ekonomia jarduera %2,5 hazi zen. Alde batetik, kontsumo pribatuaren sendotasunak eta, beste aldetik, egoitzetan eta ekipamenduan eginiko inbertsioak gastu publikoaren jaitsiera konpentsatzea lortu zuten. Azken horrek, narriadura erritmoa leundu bazuen ere, bosgarren jaitsiera jarraitua metatu zuen. Kanpo arloaren bilakaera nabarmendu zen, aurreko hiruhilekoetan ez bezala, hainbat hamarren ekarri zizkiolako BPGaren hazkundeari. Japoniak ezustea eman zuen %2,7ko hazkunde batekin, 2013ko hirugarren hiruhilekoko baino hiru hamarren gehiago. Beste hiruhileko batez, jardueraren bultzada barne eskariaren eskutik iritsi zen, zeren eta inportazioak esportazioak baino gehiago hazi izanak berriro lastatu baitzuen kanpo arloa. Deflazioa, berriz, desagertzen ari dela ematen du. Moneta hedapenak bere emaitzak ekarri zituen prezioen esparrura eta KPI indizea %1,4an kokatu zen urtarrilean, abenduko maila gorenetik bi hamarren beherago. Lan merkatuak berak ere ekonomiaren egoera ona nabaritu zuen eta langabezia tasa %3,7ra gutxitu zen abenduan, 2007ko amaieratik inoiz jaso duen mailarik txikiena baita eta ELGE osoko apalena, Korearen %3,0aren atzetik.

Europar Batasunak hazkundera finkatu zuen, periferiako herrialdeek galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuten heinean. Lehenengo aldiz azken hiru urtean, BPGaren agregatu guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, eta bi eskariak hamarrenak ekarri zizkioten jarduerari. Izan ere, kontinente zaharrak %1,1 egin zuen gora, aurreko hiruhilekoan baino bederatzi hamarren gehiago, eta urte hasieran jaso zuen aldakuntza tasa baino 1,8 puntu gehiago. Bizitasun handiago hori herrialde gehienek hobekuntzaren ondorioa da, bereziki Erresuma Batuarena, Alemaniarena eta Frantziarena. Hain zuzen ere, Erresuma Batua hazkunderaren buruan kokatu zen, %2,7ko gehikuntza tasa batekin. Alemania, berriz, inbertsioan eta esportazioetan oinarritu zen %1,4 hazteko, eta Frantziak barne eskarian, batez ere kontsumoan, izan zuen oinarria, kanpo arloak hamarrenak kendu zizkiolako jarduerari. Azkenik, Euroguneak BPGaren urte arteko tasa positiboa lortu zuen zazpi hiruhilekoz jarraian jaitsi ondoren. kasu horretan, kanpo arloa izan zen jardueraren bultzagile nagusia, eta esportazioek BPGari lagundu zioten %0,5 hazten.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasunaren langabezia tasa egonkor mantendu zen %10,8an 2013. urteko azken zatian eta 2014. urteko lehen hilabeteetan. Maila horretan iraun du ia inolako aldaketarik gabe azken urtebete osoan. Tasa horrek adierazten du 26,2 milioi lagun baino gehiago daudela lanik gabe eremu horretan, abenduan zegoen mailaren antzeko kopurua. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko joera aldaketa nabaritzen da langabeen banaketan, zeren eta langabezia tasa jaitsi egin baita 15 kidez osatutako Europar Batasuneko partaideak izan ziren ekonomia gehienetan eta, aitzitik, herrialde kide berrietan gorantz egin baitu. Inflazio apala da susperraldiaren inguruan hautematen den beste ziurgabetasunetako bat. Abenduan, eta lehen aldiz gutxienez 1997. urtetik, Europar Batasuneko herrialde guztien inflazio tasa Europako Banku Zentraleko helburuaren azpitik kokatu zen. Joera hori areagotu da 2014ko lehen hilabeteetan eta, Eurogunerako argitaratu den lehen kalkuluaren arabera (%0,8), otsailean ere horrela izango da.

2013ko azken hiruhilekoan, espainiar ekonomiak jarraipena eman zion mailakako hobekuntzari eta hazkunde tasa positiboetara hurbildu zen. Zehazkiago adierazita, BPGak %-0,2ko aldakuntza tasa jaso zuen, iazko hirugarren hiruhilekoko baino bederatzai hamarren hobe. Familien gastuaren gorakadak, hamar hiruhilekoz tasa negatibotan murgilduta egon ondoren hazkunde positiboak berreskuratu baitzituen, eta ekipamendurako ondasunetan (hala garraiorako ekipamenduan nola makinerian) eginiko inbertsioaren sendotasunak barne eskariaren ekarpen negatiboa 0,6 puntura mugatzea ahalbidetu zuten. Kanpo arloak, berriz, berriro gutxitu zuen BPGari eginiko ekarpena, oraingoan 0,4 puntura mugatuta.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek portaera hobe erakutsi zuten. Are gehiago, eraikuntzak bakarrik jarraitu zuen tasa negatibotan. Industriak, manufakturen bultzadari esker, azken urtebeteko lehen hazkunde positiboa jaso zuen. Beste aldetik, zerbitzuek amaiera eman zioten sei hiruhilekoko jaitsiera jarraituei, garraio eta ostalaritzaren bilakaera onari esker, eta lanbide eta higiezinaren jarduerari esker.

Lan merkatuak susperraldi esanguratsua erakutsi zuen, adar nagusi guztietan enplegu galera murriztu zuelako. Hala ere, 2013ko amaieran jaitsierako seigarren urtea bete zen. Hain zuzen ere, enpleguaren aldakuntza tasa %-1,6an kokatu zen, hots, iazko hirugarren hiruhilekoan zegoen tasa baino 1,7 puntu gorago. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 265.000 lanpostu galdu direla azken urtean. Datu hori azken bi urte eta erdiko positiboena den arren, berriro izan zen Europar Batasun osoko txarrenetariko bat. Are gehiago, urtarrileko langabezia tasa %25,8an kokatu zen eta, Greziako datua oraindik argitaratu ez bada ere, alde handiz izan zen altuena, eremua osatzen duten gainontzeko herrialdeekiko aldea hamar puntutik gorakoa baita. Beste aldetik, inflazioa %0,0an kokatu zen otsailean, 2013. urteko azken hilekoetan nahiko egonkor mantendu zen tasatik bi hamarren beherago, alegia. Prezioen jaitsiera horren atzean,

bereziki, erregaien eta lubrifikatzaileen salneurrien jaitsiera dago, 2013an igoera jaso zen bitartean.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2012	2013	2012		2013		
			IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	-3,3	-2,1	-3,9	-3,7	-3,1	-1,2	-0,3
- Familien gastua	-2,8	-2,1	-3,6	-4,2	-3,0	-1,8	0,7
- Administrazioaren gastua	-4,8	-2,3	-5,0	-2,3	-3,4	0,2	-3,5
Kapital finakoaren eraketa gordina	-7,0	-5,1	-7,7	-7,2	-5,8	-5,3	-1,7
- Aktibo finko materialak	-7,8	-5,5	-8,3	-7,9	-6,1	-5,6	-2,5
- Eraikuntzan	-9,7	-9,6	-10,0	-9,8	-10,1	-9,8	-8,6
- Ekipamendurako ondasunetan	-3,9	2,2	-4,8	-4,1	1,7	2,2	9,5
- Aktibo finko immaterialak	2,9	-0,2	0,4	-0,3	-3,3	-2,9	6,0
Nazio eskaria (*)	-4,1	-2,7	-4,7	-4,3	-3,6	-2,1	-0,6
Esportazioak	2,1	4,9	4,4	2,9	9,5	3,5	3,7
Inportazioak	-5,7	0,4	-3,5	-4,9	3,2	0,6	2,7
BPG (m.p.)	-1,6	-1,2	-2,1	-1,9	-1,6	-1,1	-0,2
Nekazaritza eta arrantza	-10,9	1,1	-12,7	-4,1	3,9	0,9	4,1
Industria	-0,5	-1,2	0,4	-2,5	-2,1	-0,8	0,3
Eraikuntza	-8,6	-7,7	-7,7	-7,0	-8,3	-7,8	-7,7
Zerbitzuak	-0,3	-0,5	-1,1	-1,1	-0,9	-0,6	0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	-4,9	-1,2	-5,1	-2,0	-1,0	-0,8	-1,2
GOGORATZEKOAK							
- Kontsumoko prezioen indizea	2,4	1,4	3,1	2,6	1,7	1,2	0,1
- Enplegua (**)	-4,8	-3,4	-5,0	-4,7	-4,0	-3,3	-1,6

(*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Azkenik, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratu dituen datuek erakusten dute Estatuak 40.606 milioi euroko defizita jaso zuela azaroa arte, hots, BPGaren %3,96 kontabilitate nazionalerako terminoetan. Datu hori urte osorako hartu zen konpromisoaren gainetik (BPGaren %3,8) dago, interesak ordaintzeko gastua areagotu zelako eta Gizarte Segurantzari emandako transferentziak handiagoak izan zirelako.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2013ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak BPGaren jaitsiera erritmoa leuntzeko joerari jarraipena eman zion eta %-0,3ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen, azken bi urteko emaitza onena delarik. Zenbateko horrek zortzi hamarrenetan hobetu du aurreko emaitza eta bat dator pasa den abenduan Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin zuen aurreikuspenarekin. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera hiru hamarrenetakoa izan zen, Euroguneak izan zuen erritmoa berdinduz.

Iazko azken laurdenean lortutako bultzadaren zati handi bat industriaren eskutik iritsi zen, bereziki industria manufakturagiletik, azken zortzi hiruhilekoetan pilatutako tasa negatiboak atzean utzi zituelako. Hain zuzen ere, industriak 2012ko laugarren hiruhilekoan lortu zuen balio erantsia berdindu zuen. Are gehiago, manufakturen adarrean hamarren bateko hazkundera lortu zuen. Ekoizpenaren terminoetan, energiaren beherakada bizia hauteman zen, ezohiko egoera batzuen ondorioz, baina baita kontsumo iraunkorrena ere, Fagor enpresaren itxierarengatik. Dena dela, gainontzeko produktu taldeek ekoizpena areagotzea lortu zuten, nahiz eta kopuru apalak izan ziren. Zehatz-mehatz, kontsumo iragankorreko ondasunek %1,9 handitu zuten ekoizpena, bitartekoek %1,6 eta ekipamendukoek %1,2.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2012		2013		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	-1,6	-1,2	-2,0	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3
Nekazaritza eta arrantza	8,7	-6,1	16,3	-5,0	-1,6	-1,8	-12,9
Industria eta energia	-3,7	-1,9	-3,8	-3,0	-2,7	-1,9	0,0
- Manufakturen industria	-3,7	-1,9	-4,2	-3,2	-2,5	-1,9	0,1
Eraikuntza	-8,2	-5,0	-7,1	-6,8	-6,6	-5,2	-1,2
Zerbitzuak	-0,4	-0,6	-1,0	-1,0	-0,7	-0,4	-0,1
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,1	-1,4	-1,9	-2,0	-1,6	-1,4	-0,6
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,4	-0,3	-1,7	-1,7	-0,4	-0,1	0,9
- Gainontzeko zerbitzuak	-0,3	-0,2	-0,2	-0,2	-0,1	0,0	-0,4
Balio erantsi gordina	-1,7	-1,2	-2,0	-1,9	-1,6	-1,1	-0,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-1,1	-0,7	-1,6	-0,9	-0,5	-0,6	-0,6

Iturria: Eustat.

Industria jarduerak, aipatu den bezala, gorantz egin duen arren, sektorearen etorkizunaz dauden zalantzak ez dira osorik uxatu, Industria Ministerioak argitaratzen duen industria giroaren bilakaerak erakusten duenez. Adierazle horrek atzera pausua eman zuen iazko azken zatian eta ezin izan du osorik irauli aurtengo lehen hilekoetan. Hain zuzen ere, eskari zorroa oso ahula da oraindik eta amaitutako produktuen stocka, txikia den arren, azken hilekoetan handitu da. Orobat, ekoi-zpenaren joeraz eman dituzten erantzunek hobekuntza hutsala erakusten dute eta enpleguarenaz, berriz, ez da susperraldirik hautematen.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013				
			II	III	IV	Urtarrila	Otsaila
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-5,9	-3,2	-3,8	-3,5	-1,7	---	---
Industria giroaren indizea	-23,0	-21,2	-21,8	-14,6	-22,5	-20,2	-13,6
Ekoi-zteko ahalmen. erabilera (%)	74,2	71,7	70,5	77,2	71,3	---	75,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,5	-4,5	-4,9	-4,1	-3,2	-2,7	-2,4
Eraikuntza							
Koiunturako indizea	-20,1	-16,3	-21,2	-18,5	-5,8	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-40,2	-12,0	-1,4	-37,6	15,1	---	---
Etxebizitzen salerosketak	-20,2	-18,3	-24,2	-15,0	-19,4	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-12,0	-12,0	-13,3	-11,6	-8,9	-7,2	-6,1
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	3,1	-9,1	-12,4	-11,3	-4,3	-4,3	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,8	-1,8	-5,7	-0,9	-3,1	-7,0	---
Hoteletako okupazioa	46,1	44,3	43,6	60,3	37,8	---	---
Negozio zifren indizea	-7,1	-3,6	-3,6	-2,0	-0,9	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-6,3	-5,0	-6,4	-6,4	-1,1	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	-2,0	-2,2	-2,4	-1,0	0,2	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Laugarren hiruhilekoan gertatu zen beste ezuste atseginetako bat eraikuntzaren eskutik etorri zen, beraren balio erantsiaren urte arteko aldakuntza tasa %-1,2an kokatu zuelako, azken sei urteko daturik onena baita. Tasa horrek lau puntuko hobekuntza adierazten du aurreko datuarekiko. Eustatek sektore horretaz argitaratu duen koiunturako informazioak arloaren susperraldia baieztatzen du, iazko amaieran hamar puntu baino gehiago murriztu zituelako balio

negatiboak. Beherakadaren moteltze bizi hori bereziki eraikinen atalean gauzatu zen, baina nabarmena izan zen obra zibilean ere.

Zerbitzuek %0,1eko urte arteko jaitsiera arin bat besterik ez zuten jaso 2013ko laugarren hiruhilekoan, dagoeneko egonkortasunetik oso hurbil kokatzen duena. Urte osoan zehar, sektore horrek hoherantz egin zuen eta hiruhileko batetik hurrengora hiru hamarrenetan hobetu zituen bere zenbakiak, lehen hiruhilekoko %-1,0tik aipatua izan den laugarreneko %-0,1era. Jarduera adar dinamikoena administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen izan zen, balio erantsia %0,9 areagotu baitzen urte arteko tasan. Merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituenak ere nabarmen egin zuen hoherantz urtean zehar, baina oraindik %0,6ko jaitsiera bat izan zuen balio erantsian, urte amaieran. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek urrats bat atzera eman zuten eta %0,4 gutxitu ziren.

Zerbitzuen hobekuntza orokor hori aurretik iragarrita zegoen INEk hilabeteen behin argitaratzen duen negozioen zifraren bilakaeran, urte amaieran tasa negatiboak azkar leuntzen ari zirela iradokitzen zuelako. Zehatz-mehatz adierazita, aldagai hori bigarren hiruhilekoan %-3,6an kokatu zen, hirugarrenean %-2,0ra mugatu zen eta laugarrenean, berriz, %-0,9ra leundu zen. Are gehiago, abenduko emaitza (%0,2) dagoeneko eremu positibora iritsia zen. Antzeko terminoetan ulertzen dira Eustaten koiuntura inkestaren datuak, non zerbitzuek bost puntu baino zertxobait gehiago gutxitu baitzuten jaitsiera. Inkesta horretan, merkataritzak urte arteko hazkunde positiboak jaso zituen, automobilen salmentari esker, baina aztertzen diren gainontzeko jarduerak ere emaitza hobeak lortu zituzten.

Barne produktu gordinaren jaitsiera erritmoa leundu izanarekin batera enpleguaren galera txikiagoa, urte arteko tasan, iritsi zen. Hain zuzen ere, laugarren hiruhilekoko aldakuntza %-1,0 izan zen, hirugarren hiruhilekoko saldoa %-2,0 izan zen bitartean. Beraz, enplegua gutxitzeko joeran, moteltze garbia hautematen da. Hala eta guztiz ere, urteko batez bestekoan enpleguaren galera %2,1 izan zen, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak abenduan aurreikusi zuen tasatik (%-2,2) oso hurbil. Tasa horrek esan nahi du 2013. urte osoan 19.000 lanpostu inguru galdu zirela. Horren ondorioz, dagoeneko 115.000 lanpostu garbi desagertu dira EAEn 2008. urtetik.


Enpleguaren bilakaera sektoreka aztertzen denean, baieztatuta gelditzen da hobekuntza guztietan gauzatu dela, nahiz eta egoera oso bestelakoa den batzuetan eta besteetan. Izan ere, 2013ko galerarik handiena industrian gertatu zen, 8.500 lanpostu galdu zituelako, hots, %4,3. Guztira, arlo horrek 58.000 lanpostu galdu ditu krisia hasi zenetik, 2007an zituen kopuruaren %23,6. Are handiagoa da, proportzioz, eraikuntzak pairatu duen narriadura, 2007an 101.860 laguni lana ematen bazien, sei urte beranduago beraren langile kopurua 58.600 pertsonara

gutxitu baita. Kasu horretan, denbora tarte berean metatutako galera %42,4ra iristen da. Hain zuzen ere, 2013. urtea txarrenetarikoa izan da enpleguari dagokionez, langile guztien %10,8 galdu duelako. Dena dela, iazko azken bi hiruhilekoetan enpleguaren beherakada erritmoa bizkor leundu zela begi bistakoa da.


Enpleguaren egoera zerbitzuetan oso urrun dago goiko lerroaldean aipatu diren beste bi arloen bilakaeratik, zeren eta krisiaren zailtasunei askoz hobeto erantzun baitiote eta une hauetan enplegu garbia sortzeko puntuan baitago. Hain zuzen ere, urte osoko balantzean zerbitzuek lanpostuen %0,5 bakarrik galdu zuten, hots, 3.000 lanpostu inguru, baina laugarren hiruhilekoan joera iraulia zuten eta gai izan ziren landunen kopurua zertxobait (%0,2) handitzeko, 900 enplegu garbi inguru direlarik.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek pentsarazten dute enpleguaren hobekuntza horrek jarraipena izan duela aurtengo lehen hilekoetan. Estatistika iturri horren arabera, jarduera adar batzuk dagoeneko afiliatuen kopurua areagotzen ari dira. Kasu esanguratsuenak honako hauek dira: hezkuntza, otsailean %4,3ko urte arteko gorakada jaso baitzuen, jarduera artistikoak (%4,1), osasun arloko jarduerak (%2,8), higiezin arloko jarduerak (%2,6), jarduera administratiboak (%1,3), ostalaritza (%0,6) eta beste zerbitzuak (%0,7). Guztira, otsailean enplegu garbia sortu zuten adarren multzoak afiliazio osoaren %38,7 biltzen du. Beste

muturrean, beherakadak oso garrantzitsuak dira oraindik eraikuntzan (%-6,1), informazioa eta komunikazioetan (%-4,4), finantza arloko jardueretan (%-3,7) eta manufacturatan (%-2,4), beste adar batzuen artean.

BPGaren eta enpleguaren bilakaerek lan faktorearen itxurazko produktibitatearen %1,0ko hazkundera eragin dute, urteko batez bestekoan. Tasa hori oso hurbil dago aldagai horrek izan duen batez besteko baliotik (%1,1 jaso du 1995. urtetik). Ohikoa denez, industriak ekarpen garrantzitsua egin zion eraginkortasuneko hobekuntza horri, produktibitatea %2,5 areagotuz, hots, joerazko bere balioa baino puntu erdi bat gehiago. Are deigarriagoa da eraikuntzaren datua (%6,5), sektore horrek ez baitu horrelako tamaina handiko hobekuntzarik izaten. Enpleguaren galera garrantzitsua dago emaitza horren atzean. Azkenik, zerbitzuek zertxobait murriztu zuten produktibitatea (%-0,1), BPGa eta enplegua berdintsu gutxitu baitziren.

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegiak barne eskariaren bilakaera hobea iradokitzen du, urte arteko tasa laugarren hiruhilekoan %-0,5ean kokatu zelako, aurreko balioa puntu batean baino gehiago hobetuz. Barne eskariaren bi osagai nagusiek aurreko hiruhilekoetakoa baino irudi ez hain negatiboa eskaini zuten, baina ez ziren gai izan balio positiboak berreskuratzeko. Txanponaren ifrentzua kanpo arloak jarri zuen, BPGaren gehikuntzari egin zion ekarpena hirugarren hiruhilekoko baino nabarmen txikiagoa izan zelako. Ekarpene txikiago hori bat dator susperraldiko eszenario batean espero daitekeenarekin, ekoizpen jardueraren berpizteak inportazioak areagotzen dituelako.

Hain zuzen ere, azken kontsumoan eginiko gastuak oso modu nabarmenean gutxitu zuen bere jaitziera erritmoa laugarren hiruhilekoan, urte artekoa %-0,6an kokatu arte (%-1,3 hirugarren hiruhilekoan). Emaitzaren hobekuntza familien kontsumoan oinarritu zen, aurreko urteko maila ia berdindu zuelako. Izan ere, kontsumo pribatuaren aldakuntza tasa %-0,1 izan zen, hiru urtean lortu duen daturik onena. Enplegu galera moteldu izana, konfiantza neurri batean berreskuratu izana eta finantza aberastasunaren gehikuntza dira hobekuntza horren atzean dauden arrazoietakoz batzuk. Hala ere, langabezia tasa altua, familien gehiegizko zorpetzea eta aktibo higiezinaren balio galera pisuzko arrazoiak dira aldagai hori datozen hiruhilekoetan oso gutxi haziko dela pentsatzeko.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2012		2013		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	-1,6	-1,2	-2,0	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3
Barneko azken kontsumoa	-1,2	-1,0	-1,4	-1,2	-1,1	-1,3	-0,6
- Familien gastua kontsumoan	-1,3	-1,0	-1,5	-1,7	-0,9	-1,3	-0,1
- Admintr. gastua kontsumoan	-0,8	-1,3	-1,1	0,5	-2,1	-1,1	-2,3
Kapital eraketa gordina	-6,3	-3,2	-5,9	-4,7	-4,0	-3,8	-0,3
- Ekipamendu ondasunak	-5,5	-1,2	-5,7	-2,8	-1,1	-0,8	0,1
- Gainontzeko inbertsioa	-6,6	-4,1	-6,0	-5,5	-5,3	-5,1	-0,5
Barne eskaria	-2,4	-1,5	-2,4	-2,0	-1,8	-1,8	-0,5
Esportazioak	-3,3	1,1	-8,1	-6,7	2,9	5,5	3,1
Inportazioak	-4,2	0,5	-8,4	-6,6	2,3	4,0	2,7

Iturria: Eustat.

Administrazio publikoen kontsumoak, ordea, BPGaren bilakaera lastatu zuen laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan %-2,3 jaso zuelako. Tasa hori aurreko hiruhilekoetakoa baino nabarmen negatiboagoa izan zen. Are gehiago, hiruhilekoka kalkulaturako serie historiko osoan, 1995ean hasita, inoiz jaso den beherakadarik handiena da hori. Horrek agerian uzten du defizit publikoa zuzentzeko helburua betetze aldera administrazioa egiten ari den lan eskerga.

Barne eskariaren beste osagai nagusiak, hots, kapital eraketa gordinak, oso aurrerakada garrantzitsua eskaini zuen laugarren hiruhilekoan eta %-0,3ko urte arteko tasa jaso zuen, azken bost urte eta erdiko apalena baita. Hobekuntza nabarmena izan zen bai ekipamenduan eginiko inbertsioan bai gainontzekoan. Zehazkiago adierazita, ekipamendurako ondasunetan eginikoak suspertzeko bideari eutsi zion eta balio positiboak berreskuratu zituen laugarren hiruhilekoan, oraindik oso motelak izan ziren arren (%0,1). Gainontzeko inbertsioak atzean utzi zituen iazko lehen hiruhilekoetako beherakada biziak, guztiak %5etik gorakoak, eta jaitsiera gutxitu zuen, %-0,5 itxaropentsu batean kokatu arte.

Argitaratu den koiunturako informazioak egiaztatzen du kontu ekonomikoek ekipamendurako inbertsioaz kalkulatu dutena. Izan ere, ondasun mota horren ekoizpenak lehen gehikuntza tasak jaso zituen iazko azken hilekoetan, urte arteko tasan, urte eta erdiko epealdian ia etengabeak ziren jaitsierak bildu eta gero. Halaber, ekipamendurako ondasunen inportazioak ere areagotu zituen laugarren hiruhilekoan. Azkenik, zama ibilgailuak erosteko eman diren diru laguntzek

kamioien eta traktoreen kopuru handi bat ordezkatzeari ahalbidetu dute, batez ere iazko bigarren erdian. Hala eta guztiz ere, 2013ko matrikulazioen kopurua (3.735 zama ibilgailu) oso urrun dago krisiaren aurretik jasotzen ziren zenbakietatik (2007an 15.827 matrikulatu ziren).

Aurreko hiruhilekoan ez bezala, laugarrenean kanpo saldoak ekarpen mugatua egin zion EAEko barne produktu gordinaren gehikuntzari, Ekonomia Zuzendaritzak bi hamarrenetan kalkulatu duena. Hala ondasunen eta zerbitzuen esportazioak nola inportazioak areagotu ziren urte arteko tasan, baina aurreko hiruhilekoan baino gutxiago. Hain zuzen ere, lehenengoak %3,1 hazi ziren eta bigarrenak, berriz, %2,7. Kasu batean eta bestean prezioen aldakuntzak oso txikiak izan ziren eta, horren ondorioz, hazkunde tasak termino nominaletan aipatu direnen oso antzekoak izan ziren.

Atzerrian saldutako ondasunei dagokienez, Aduana Sailaren informazioak adierazten du esportazioak oso nabarmen gutxitu zirela 2013ko azken hiruhilekoan, %-8,3ko tasa jaso baitzuen aurreko urteko epe beraren aldean. Beherakada hori, neurri handi batean, energia alorreko ekoizkinen salmentaren jaitsierak (%-62,5) eragin zuen. Atal hori txiki samarra da esportazioen egitura osoan (esportazio guztietatik %6,4 biltzen ditu) eta oso aldakuntza tasa handiak jasotzeko joera dauka. Halaber, egon badaude bestelako arrazoiak jaitsiera hori azaltzeko, enpresa jakin batzuei lotuta eta beherakada iragankorra izango dela pentsarazten dutenak. Aitzitik, energiakoak ez diren esportazioek portaera hobea erakutsi zuten eta %1,8 areagotu ziren, dagoeneko hiru hiruhileko kateatuz datu positiboekin.

Esportazioen atal behinenean gehikuntza tasa esanguratsuak lortu zituzten iazko laugarren hiruhilekoan. Esate baterako, ekipamendurako ondasunen salmenta, esportazio guztien ia erdia biltzen baitu, %3,4 areagotu zen aurreko urtearekiko. Bai makinak eta tresnen esportazioak bai garraio ondasunenak balio positiboak lortu zituzten. Lehen kasuan, salmenten hazkundera %3,6ra iritsi zen eta bigarrenean, berriz, %3,1era. Metal arruntak eta beren manufakturrek ere, horixe baita pisu handia (guztizkoaren %25,6) duen beste ataletako bat, azpimarratu beharreko gehikuntza tasa bat eskuratu zuen, baina apalagoa (%2,6). Dena dela, emaitza onenak tamaina txikiagoko bi atalek jaso zituzten, produktu kimikoak (%8,8) eta bestelako manufakturrek (%7,2). Txanponaren ifrentzuan, dagoeneko aipatua izan den energiako ekoizkinen atalaz gain, nekazaritzako produktuak (%-5,8) eta plastikoa eta kautxua biltzen dituen taldea (%-2,5) daude.

Helburu eremuaren arabera, esportazioen jaitsiera herrialde garatuetan eta, neurri txikiagoan, garapen bidean dauden herrialdeetan nabaritu zen. Zehazkiago, ELGE erakundeko herrialdeei saldutako EAEko produktuak %2,3 murriztu ziren, bi hiruhilekoz hazi eta gero. Alde handiz, urte arteko beherakadarik biziena AEBetan gertatu zen, gure autonomia erkidegoan erositakoa

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

%25,4 murriztu zutelako. Jaitsiera, oso bereziki, erregai mineralen erosketan dago fokatuta, herrialde horretara esportatutakoa erdira jaitsi zelako. Aitzitik, nahiko pisu handia duten gainontzeko atalek salmentak areagotu zituzten.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2013				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-3,7	-0,3	-4,4	9,3	2,7	-8,3	4.971.888
ELGE	-5,5	1,2	-5,8	10,7	2,0	-2,3	3.865.976
Europar Batasuna	-9,1	-0,8	-9,8	3,9	4,3	-0,8	3.059.005
Frantzia	-15,9	-1,5	-8,5	14,8	0,1	-10,9	812.343
Alemania	-5,0	1,8	-4,7	0,0	8,2	4,6	756.351
Erresuma Batua	12,0	-8,7	-19,2	-5,3	0,1	-9,8	296.657
Italia	-20,6	-2,5	-8,0	5,7	-1,2	-5,8	220.031
AEB	0,7	8,7	67,3	30,3	0,6	-25,4	320.195
ELGETik kanpokoak	2,9	-5,0	1,1	4,2	5,2	-24,4	1.105.912

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europar Batasunak, EAEko produktuen helburua den aldetik, portaera hobea erakutsi zuen eta %0,8 bakarrik murriztu zituen erosketak. Hor ere nabaria da erregaien salmenten eragin garrantzitsu bat, %32,7 gutxitu zirelako. Aitzitik, gainontzeko arantzel atalek, oro har, %2,0 hazi ziren, aurreko bi hiruhilekoetan jaso ziren emaitzen antzeko tasa bat delarik. Oso kontrajarriak dira Alemanian eta beste herrialdeetan jasotako emaitzak. Lehenengoan, esportazioak %4,6 areagotu ziren, baina Frantzian (%-10,9), Erresuma Batuan (%-9,8) eta Italian (%-5,8) jaitsi egin ziren. Frantziako kasuan, jaitsiera erregaien erosketak txikiagoaren ondorioa da, baina beste bi herrialdeetan energiakoak ez diren produktuek ere salmentak murriztu zituzten.

Garapen bidean dauden herrialdeen multzoak ia laurden batean murriztu zituen EAEn eginiko erosketak. Hala ere, bezero nagusiek oso bilakaera dinamikoa erakutsi zuten. Esate baterako, Brasilek eta Txinak, eremu horretara zuzentzen diren EAEko esportazioen %24,7 biltzen baitituzte, %66,5 eta %19,7 areagotu zituzten EAEko ekoizkinen inportazioak, hurrenez hurren, urte arteko tasan. Orobat, garrantzia handiena duten hirugarren eta laugarren herrialdeek ere (Aljeria eta Errusia) %11,0 baino zertxobait gehiago handitu zituzten erosketak. Baina gehikuntza garrantzitsu horiek konpentsatuta geratu ziren azaleratzen ari diren beste

herrialdeen emaitza negatiboekin. Beraien artean, Maroko (%-8,4), Hegoafrika (%-45,3), India (%-36,6) eta Venezuela (%-70,8) nabarmendu behar dira.

EAEko barne eskariak laugarren hiruhilekoan ezagutu zuen suspertzeak, bai kontsumo pribatuaren atalean bai, eta hau bereziki, inbertsioarenean, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioa areagotzea ahalbidetu zuen, %6,5 handitu baitziren. Erosketen bizitasuna herrialde garatuetan fokatu zen, oro har %23,0 gehiago saldu baitzuten gure autonomia erkidegoan. Aitzitik, ELGE erakundean parte hartzen ez duten herrialdeetan erositakoaren balioa %19,0 gutxitu zen.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2013				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-9,4	1,8	3,1	2,7	-4,9	6,5	4.255.449
ELGE	2,6	1,0	-9,8	-5,8	-2,8	23,0	2.987.549
Europar Batasuna	-6,8	-0,8	-7,2	-4,5	-10,9	18,7	2.254.408
Frantzia	-9,4	0,9	-7,9	1,1	1,9	9,0	420.372
Alemania	-2,1	-2,3	-5,7	3,9	-13,0	5,3	491.525
Erresuma Batua	-28,8	-2,6	-7,2	15,9	-30,6	14,1	149.994
Italia	-0,8	-11,6	-11,9	-12,4	-9,8	-12,3	208.082
AEB	-13,0	40,6	-58,9	-12,6	62,7	318,7	378.909
ELGETik kanpokoak	-24,9	3,3	28,2	21,6	-8,2	-19,0	1.267.900

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Deigarria da AEBetan eginiko erosketek ezagutu zuten gehikuntza bizia, aurreko urteko epealdi berean eginikoak laukoiztu zituztelako. Herrialde hori da, gaur egun, EAEko bigarren hornitzaile nagusia energiako produktuetan, bakarrik Errusiaren atzetik. Are gehiago, azken herrialde horrekiko joera justu kontrakoa da eta, Mexikorekin gertatzen den bezala, badirudi pisua galtzen ari dela EAEko inportazioen egituran. Kolonbiarekin eta Egiptorekin ere areagotu dira merkataritza harremanak energiaren alorrean.

Energiaz bestelako ekoizkinen inportazioek bizitasun handiagoko panorama bat eskaintzen dute, urte arteko tasan %16,6 bizkortu zirelako. Kasu horretan, hala herrialde garatuek nola garatzen ari direnek beren salmentak areagotu zituzten EAEn. Lehen kasuan, zenbatekoa %18,9 igo zen

eta bigarreanean, berriz, %6,9. Europar Batasuna da inportazio horien gehiengoaren jatorria eta %18,7ko gehikuntza lortu zuen. Hala ere, bizitasun horren zati bat ezohikoa dela azpimarratu behar da, ohiko hornitzaileetatik (Alemaniatik edo Frantziatik) etorri beharrean, Irlandatik datorrelako. Herrialde horretan produktu kimikoen (olio esentzialak eta bestelako produktu kimikoak) ezohiko kopuru bat erosi zen.

Laugarren hiruhilekoko merkataritza saldoa 716 milioi eurora iritsi zen. Kopuru hori apala da aurreko emaitzeekin alderatzen bada. Berrero ere, energiako saldoa oso negatiboa izan zen EAerentzat (-1.072 milioi euro), baina konpentsatuta geratu zen energiaz bestelako saldo nabarmenarekin, 1.788 milioi eurokoa. Dena dela, azken zenbateko hori aurreko lau hiruhilekoetan lortutakoak baino txikiagoa da.

Prezioak

2013ko laugarren hiruhilekoan, prezioak neurtzen dituzten adierazleen aldakuntza erritmoa, oro har, oso apala izan zen berrero. Portaera orokor horretatik aldendu den salbuespena BPGaren deflatorea izan zen, urte arteko tasan %1,2 hazi zelako, aurreko hiruhilekoko emaitza bi hamarrenetan gaudituz. Igoera txiki horren atzean gertakari jakin bat dago: administrazioaren langileei aparteko ordainketa berrero ematea. Horrek gorantz bultzatu zuen kontsumo publikoaren deflatorea, %0,2tik %6,6ra igaro baitzen. Hala ere, eragin horregatik izan ez balitz, BPGaren deflatoreak beheranzko joerari eutsiko lioke, batez ere kontsumo pribatuaren deflatoreak jaso zuen moteltze garrantzitsuari esker, puntu oso bat jaitsi zelako, %1,3tik %0,3ra, eta, neurri txikiagoan, kapital eraketa gordinaren deflatoreak tasa negatibotan (%-0,9) jarraitu zuelako.

Kontsumoko prezioen bilakaerari dagokionez, azpimarratu behar da 2013an zehar metatutako inflazioa, hots, KPIaren urte arteko tasa abenduan, %0,6an kokatu zela eta horixe dela estatistika hori osatzen hasi zenetik urteko azken hilabete batek jaso duen tasarik txikiena. Beste aldetik, urte osoko batez besteko inflazioa, hau da, urte osoan zehar prezioek izan duten batez besteko emaitza aurreko urteko batez besteko igoerarekin alderatuta, %1,6 izan zen, inoizko bigarren tasarik txikiena, 2009ko %0,3aren atzetik.

Kontsumoko prezioek egonkortasun handia erakutsi zuten urte osoan zehar, baina moteltzeko joera garbia izan zuten urteko bigarren erdian, administrazioak finkatzen dituen hainbat salneurriren eta 2012ko irailean indarrean sartu zen BEZaren igoeraren goranzko eragina desagertu zen heinean. Moteltzeko joera hori are biziagoa izan zitekeen, Brent motako

petrolioaren upelak urteko erdialdeko hilabeteetako baina prezio altuagoak izan zituelako. Dena dela, petrolio zertxobait merkatu zen aurtengo lehen jardunaldietan eta, horri esker, 2014ko hasieran inflazioak oso maila apaletan jarraitzen du, azken hilabeteetako %0,6ko datua berdinduz eta otsailan %0,5era jaitsiz.

Europako ekonomien inflazioa ere oso apala izan zen, neurri batean ekonomiaren ahultasunarengatik eta, beste aldetik, truke tasaren balio irabaziarengatik. Hala ere, EAEko inflazioaren eta Eurogunearenaren arteko diferentziala lehenengoaren aldekoa izan zen, eta bi hamarrenekoa urte amaieran. 2014ko hasieran, abantaila hori hiru hamarrenetara zabaldu da. Espainiari dagokionez, inflazio tarte bost hamarrenekoa da, EAEn martxan jarri zen botiken koordainketak baldintzatuta. Dena dela, neurri horren eragina iragankorra da eta aurtengo uztailean desagertuko da.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2012	2013	2013		2014	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	2,3	1,6	1,6	0,5	0,5	0,5
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,5	1,6	1,7	0,7	0,6	0,5
- Elikagai landuak (%14,1)	3,3	3,1	2,9	1,6	0,6	0,1
- Industria ondasunak (%26,2)	0,3	0,5	0,7	0,3	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%41,5)	1,7	1,8	2,0	0,6	0,7	0,3
Hondar inflazioa (%18,2)	6,1	1,4	0,9	-0,1	-0,2	0,0
- Landu gabeko elikagaiak (%7,0)	2,7	3,7	6,1	1,5	1,8	0,1
- Energia (%11,2)	8,3	0,0	-2,2	-1,1	-1,3	-0,1

Iturria: INE.

Lehenago aipatu den EAEko inflazioaren moteltzean ekoizkin talde handi guztiek parte hartu zuten. Azpiko inflazioak eta hondar inflazioak balio txikiagoak jaso izanak horixe baieztatzen du. Lehen kasuan, moteltzeko joeraren arrazoi nagusia BEZaren igoeraren eragina desagertu izana da. Eragin horren desagertzea bereziki zerbitzuei egin zien mesede eta beraren urte arteko tasa %2,0tik hirugarren hiruhilekoan %0,6ra laugarrenean igaro zen. Hortik aurrera, 2014ko hasieran oso aldakuntza txikiak izan ditu. Beste aldetik, landutako elikagaiak ere hazkunde erritmoa gutxitu zuten eta aurreko hiruhilekoan baino puntu bat eta hiru hamarren gutxiago garestitu ziren, lehengaien merkatzearengatik. Halaber, igoera erritmoa leuntzeko joerak 2014ko hasieran jarraitu du, %0,6ko urte arteko tasa jaso arte. Azkenik, energiakoak ez diren

ondasunen salneurriek oso gehikuntza apalak izan zituzten, berriro ere PIVE planaren eraginak lagunduta.

KPI indizearen osagai gorabeheratsuenei dagokienez, emaitza apalak jasotzen jarraitu zuten, baina beren urte arteko aldakuntza erritmoa zertxobait areagotu zen azken hilabeteetan energiako produktuen salneurria igo zelako. Bitartean, landu gabeko elikagaien prezioek azken hiruhilekoan izan zituzten gehikuntza tasak 2011ko amaieratik inoiz jaso diren txikienak izan ziren.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013				2014
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	2,3	1,6	2,5	1,7	1,6	0,5	0,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,9	3,2	3,7	3,7	1,1	0,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	5,8	6,0	8,4	4,7	5,8	5,3	2,1
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,1	0,1	0,2	-0,1	0,5	0,3
Etxebizitza	5,7	1,1	4,7	0,4	-0,6	-0,1	1,9
Etxeko hornidura	1,1	2,0	2,9	3,0	1,9	0,1	-0,4
Medikuntza	-0,7	7,5	4,6	5,0	11,2	9,0	7,9
Garraioa	4,3	0,3	1,3	0,1	-0,1	-0,1	-1,5
Komunikazioak	-3,4	-4,3	-1,9	-4,1	-4,2	-6,8	-6,8
Aisia eta kultura	1,0	1,6	2,4	2,4	1,7	-0,2	-0,4
Irakaskuntza	2,8	3,0	3,2	3,2	3,2	2,5	2,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,0	1,1	1,2	1,2	1,4	0,7	0,8
Besteak	2,4	2,1	3,0	2,9	2,1	0,5	0,7

Iturria: INE.

KPI osatzen duten talde ia guztiek ekarpenak egin zituzten inflazioaren bilakaera moteltzeko. Portaera orokor horretatik desbideratu ziren salbuespen bakarrak medikuntza, eta edari alkoholdunak eta tabakoa izan ziren, bi talde horiek urte arteko tasa nabarmenak jaso zituztelako. Lehen kasuan, botiken koordinketa martxan jarri izanak baldintzatu zuen igoera. Bigarrenean, berriz, tabakoaren gaineko zergaren igoerek taldearen tasa gorarazi zuten. Bi talde horiei hezkuntzarena gehitu behar zaie, unibertsitateetako tasen igoerarengatik. Aitzitik, gainontzeko taldeek %2aren azpiko gehikuntza tasak jaso zituzten, hots, Europako Banku Zentralak ezarri zuen erreferentziako helburuaren azpikoak. Orobat, lau taldek prezioak jaitsi

zituzten. Haien artean, komunikazioen taldea nabarmendu da, prezioen beherakada garrantzitsuak pilatu dituelako, sektore horretan lehia handia dagoelako eta aurrerapen teknologikoak barnean hartzen dituelako.

Industriako prezioei dagokienez, aurreko hilabeteetako joera motela gelditu ondoren, pasa den abenduan balio positiboak (%0,5) berreskuratu zituen, baina aurtengo urtarrilean berriro itzuli ziren tasa negatiboak eta %0,9 jaitsi zen urte arteko tasan. Portaera horretan erabakigarria izan zen, berriro ere, energia arloko bilakaera. Izan ere, koke lanketaren eta petrolio fintzearen prezioetan gauzatu zen merkatzek eragina izan zuen energiaren prezioen jaitsieran (%-2,0). Bitartean, gainontzeko taldeek ia ez zuten aldakuntzarik erakutsi, salbuespena bitarteko ondasunena izan zelarik, bere prezioak %1,6 merkatu zituelako. Balio horiek eta Europar Batasunean jaso direnak antzekoak dira. Hain zuzen ere, lurralde horretako IPRI %-1,2an kokatu zen urtarrilean, energiako prezioek (%-3,6) eta bitarteko ondasunek (%-1,5) beherakada garrantzitsuak jasota.

Azkenik, urte hasieratik bizi zen soldaten igoerak txikiak izateari eutsi zitzaion eta 2013. urtea amaitu zenean batez besteko gehikuntza %1,3 izan zen, hots, aurreko urtekoa baino nabarmen apalagoa. Aurreko hilabeteetan bezala, soldaten igoerak zertxobait txikiagoak izan ziren urtean zehar adostutako hitzarmenetan (%1,1), aurreko urteetan sinatutakoak baino 2013an oraindik eragina zuten urte batzuetarako hitzarmenetan baino. Orobat, ez da alde handirik hautematen enpresetan sinatutakoen eta sektore mailan adostutakoen hitzarmenen artean, lan erreforma indarrean egon arren. hala ere, gogoratu behar da azken urteetan sinatutako lan hitzarmenek soldatapeko gutxirengan dutela eragina eta, horren ondorioz, modu mugatu batean islatzen dutela lan baldintzetan gertatzen ari diren aldaketak.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,7	1,9	3,6	2,7	1,3
- Urtean zehar sinatutakoak	2,8	1,7	3,4	2,0	1,1
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,8	1,7	3,8	2,7	1,3
- Enpresako hitzarmenak	2,6	2,4	3,1	2,6	1,2

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Consensus Forecastek kalkulatu duenez, munduko ekonomiaren hazkundera 2014an %3,0an kokatuko da eta aldakuntza tasa hori zertxobait gehiago igoko da 2015ean, %3,3ra iritsi arte. Beste erakunde batzuk, hala nola NDF, baikorragoak dira eta ekonomiaren bilakaera dinamikoagoa izango dela uste dute, gehikuntzak 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren, %3,7 eta %3,9 izango direlarik. Zenbatekoak ez datoz guztiz bat, baina beraien atzean dagoen analisia oso antzekoa da. Lehen Eurogunetik zetozen arriskuak gaur ez dira lehentasunezkoak eta arreta nagusia tokiz aldatu da. Une hauetan, ziurgabetasun handiena garatzen ari diren herrialdeetara igaro da, aurreikusten den geldotasunarengatik, kapital fluxuak bertatik irten daitezkeelako eta barne ahultasunak erakusten dituztelako. Afrikako iparraldeko eta ekialdeko egoera ere kezagarria da.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	PIB			Kontsumoko prezioak		
	2013	2014	2015	2013	2014	2015
Munduko ekonomia	2,5	3,0	3,3	2,8	3,0	3,1
AEB	1,9	2,8	3,1	1,5	1,7	2,0
Kanada	2,0	2,2	2,5	1,0	1,5	1,9
Japonia	1,6	1,4	1,3	0,4	2,6	1,7
Eurogunea	-0,4	1,1	1,4	1,4	0,9	1,3
Europar Batasuna	0,1	1,5	1,8	1,4	1,2	1,7
Alemania	0,4	1,8	2,0	1,5	1,5	1,9
Espainia	-1,2	0,9	1,5	1,4	0,5	1,1
Frantzia	0,3	0,8	1,2	0,9	1,1	1,4
Herbehereak	-0,8	0,8	1,2	2,5	1,1	1,4
Italia	-1,8	0,5	1,0	1,2	0,9	1,2
Erresuma Batua	1,8	2,7	2,5	2,6	2,0	2,2
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,6	4,7	2,6	3,3	3,0
Ekialdeko Europa	2,0	2,5	3,1	5,1	4,8	4,8
Amerika Latinoa	2,6	2,5	3,0	8,5	9,6	8,5

Iturria: Consensus Forecast (2014ko martxoa).

Estatubatuar ekonomiarentzat, 2014. urtea hazkunde sendoko epealdia izango da, lan merkatura eta ekonomiaren ekoizpen arlo gehienetara baldintza hobekak ekarriko dituen. 2015. urtean, hazkundera gehiago finkatuko da. Izan ere, Consensus Forecasten arabera, AEBetako ekonomia %2,8 haziko da 2014an eta %3,1, berriz, 2015ean. Barne eskari pribatuak ekonomia bultzatzen jarraituko du enpresek eta familiek bizi duten egoera hobetzen den heinean. Administrazio publikoen gastuak ekarpen txikia egingo dio hazkunde globalari datozen urteetan eta lortu den akordio fiskalari esker utzi egingo dio lasta bat izateari. Ekonomia estatubatuarrek gaur egun daukan arrisku behinena kanpotik dator, munduko gainontzeko ekonomien bilakaeratik, alegia. AEBetako merkataritza bazkide nagusietan espero dena baino hazkunde txikiago bat jasotzeko iparramerikar ekonomia horren moteltzea eragingo luke. Izan ere, Erreserba Federalaren politikek eta interes tasen igoerak garapen bidean dauden herrialdeen hazkundera kaltetu dezakete.

Consensus Forecastek Eurogunearentzat argitaratu dituzten aurreikuspenek %1,1an kokatzen dute berriro 2014ko hazkunde tasa eta %1,4an, berriz, 2015ekoa. Urte horietarako, Europako Batzordeak %1,2ko eta %1,8ko hazkundera iragarri du, hurrenez hurren. Izan ere, aurreikusten denez, 2015ean estatu guztiek hazkunde tasa positiboak lortuko dituzte. Jardueraren gehikuntza horrek hainbat oinarri izango ditu: Europako barne eskariaren sendotzea, finantzaziorako baldintzen hobekuntza, egoera fiskal hobea eta ekonomia eragileen konfiantza handiagoa. Azken buruan, banka batasuna lortzeko bideratu diren urratsek eta Europako Banku Zentralak eta estatu kideen gobernuek ezarri dituzten politika orokorrek Europako moneta batasunean arrisku gutxiagoko eta igurikimen hobeko testuinguru bat lortzea ahalbidetu dute. Hala ere, nazioarteko erakundeek arreta berezia jartzen dute egingo diren banka balantzen azterketetan eta Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan, aurreikusten den ekonomia hazkundera ziurgabetasuna ekartzen baitiote.

Consensus Forecasten arabera, espainiar ekonomiaren jarduera %0,9aren inguruan haziko da 2014an eta %1,5era areagotuko da 2015ean. NDF talde ezkorrenean dago kokatuta eta beraren hazkunde tasak %0,6 eta %0,8 dira 2014rako eta 2015erako, hurrenez hurren. Hala ere, oso deigarria izan da erakunde horrek berriki egin duen goranzko zuzenketa handia. Europako Batzordeak, berriz, aurreikuspen positiboagoak aurkeztu ditu, %1,0ko eta %1,7ko tasekin. Eurogunean bezala, Espainian ere gutxitu dira beheranzko arriskuak, baina oraindik ez da osorik baztertu ezegonkortasuneko uneak bizitzea. Barne eskaria urratsez urrats suspertuko da, barneko doikuntzei esker, politika fiskala horren murriztailea izango ez delako, kreditua lortzeko baldintzak hobetuko direlako, enplegua sortuko delako eta eragileen konfiantza areagotuko delako. Hala ere, espainiar ekonomiaren bultzagile nagusia esportazioak izango dira. Espainiak dituen merkataritza bazkideen susperraldiak eta egitezko truke tasa errearen balio galerak espainiar produktuen eta zerbitzuen salmenta atzerrian nabarmen areagotuko dela bermatzen dute.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2014ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014				2014	2015
	I	II	III	IV		
BPG	0,4	1,1	1,6	2,0	1,3	2,2
Kontsumo pribatua	1,4	1,4	0,9	0,8	1,1	1,4
Kontsumo publikoa	-3,6	-2,2	-0,9	1,5	-1,3	1,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-0,9	0,7	0,4	1,1	0,3	2,8
- Inbertsioa ekipamenduan	9,1	6,0	4,1	4,0	5,7	3,1
- Inbertsioa landutako aktibotan	4,2	4,0	-2,3	-2,4	0,7	-2,2
- Inbertsioa eraikuntzan	-7,2	-3,1	-2,2	-1,2	-3,5	2,4
Barne eskaria	-0,1	0,6	0,6	1,2	0,6	1,6
Esportazioak	4,8	4,8	5,9	6,1	5,4	6,5
Inportazioak	3,5	3,5	3,1	3,8	3,5	5,0

Iturria: CEPREDE

Hondoko eszenategi horretan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak 2014. urte osorako eta 2015eko lehen seihilekorako eguneratu ditu. Azken aldian bizi izan den susperraldi arina urratsez urrats finkatuko da 2014an eta ekonomia %1,0 haziko da aurtan. 2015eko lehen seihilekoan, goranzko joerak aurrera jarraituko du eta gehikuntza tasa %1,5era iritsiko da. Eragileen konfiantzaren eta finantzaziorako baldintzen hobekuntzak barne eskariaren susperraldia lagunduko dute.

Arlo pribatuaren doikuntzek kontsumoaren eta inbertsioaren garapena mugatzen jarraituko dute. Hala ere, aurreikuspenek seinalatzen dute osagai horiek susperraldi garbia izango dutela. Familien kontsumoari dagokionez, hazkundera honako alderdietan oinarrituko da: errenta erabilgarriaren igoeran, konfiantza handiagoan, inflazio tasa apalean eta, batez ere, lan merkatuaren egoera hobean. Kapital eraketa gordinak bizitasun handia erakutsiko du eraikuntzan eginiko inbertsioaren narriadura leunduko delako eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak bilakaera ona erakutsiko duelako. Azken osagai horri mesede egingo dio barne hazkunderaren eta EAEko esportazioen helburua diren merkatuen aurreikuspen hobekuntzak. Finantzaziorako baldintza hobek ekoizteko inbertsioa lagunduko dute.

Kanpo arloak ekarpen txikiagoa egingo dio BPGaren hazkunderari eta barne eskariaren ekarpen handiago batek konpentsatuko du hori. Beraz, hazkunderaren osaera orekatuagoa izango da. Esportazioak berriro areagotuko dira, kanpo merkatuek izango duten susperraldiari esker,

helburu merkatuak dibertsifikatuko direlako eta lehiakortasuna irabaziko delako. Orobat, inportazioak areagotuko dira barne eskaria handituko den heinean.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2014ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014				2014	2015	
	I	II	III	IV		I	II
BPG	0,4	0,8	1,2	1,3	1,0	1,4	1,6
Azken kontsumoa	-0,1	0,3	0,6	0,8	0,4	1,0	1,0
Kontsumo pribatua	0,2	0,7	1,0	1,2	0,8	1,5	1,6
Kontsumo publikoa	-1,4	-1,3	-1,1	-0,7	-1,1	-0,9	-1,1
Kapital eraketa gordina	0,4	1,2	1,5	1,8	1,2	2,1	2,7
Barne eskariaren ekarpena	-0,1	0,4	0,8	1,0	0,5	1,1	1,3
Kanpo saldoaren ekarpena	0,6	0,4	0,4	0,3	0,4	0,3	0,3
Lehen arloa	7,5	0,9	2,9	-8,7	0,7	-7,2	-3,1
Industria	0,5	1,3	1,6	2,2	1,4	2,3	2,5
Eraikuntza	-3,1	-2,4	-2,1	-1,1	-2,2	-0,7	0,0
Zerbitzuak	0,6	1,0	1,3	1,4	1,1	1,6	1,6
Balio erantsi gordina	0,4	0,8	1,2	1,3	0,9	1,5	1,7
Ekoizkinen gaineko zergak	0,6	1,0	1,4	1,2	1,1	1,2	1,3
BPGaren deflatoarea	0,9	1,0	1,0	1,2	1,0	1,2	1,4
Enplegua	-0,4	-0,2	0,3	0,4	0,0	0,5	0,5
Langabezia tasa	15,2	14,4	14,0	13,7	14,3	13,6	13,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzari dagokionez, eta salbuespena lehen arloaren gorabeherak izango direlarik, ekoizpen arlo guztiek balio erantsia areagotuko dute aurreikuspen hauek kontuan hartzen duten epealdi osoan. Industriaren aurrerakada kanpo eta barne susperraldian oinarrituko da eta beraren balio erantsiak hazkunde iraunkorreko norabidea erakutsiko du denboran zehar. Zerbitzuek bat egingo dute goranzko joera horrekin. Beste aldetik, eraikuntzak urratsak emango ditu bere doikuntza prozesuan. Etxebizitzen eskaintza egokituz joango da eta eskaria poliki-poliki handituko da, familien finantza eta lan egoera hobetuko delako eta hipoteken interesak egonkortuko direlako. 2014. urterako, enpleguaren aldakuntza tasa %0,0 izango dela aurreikusten da. Beraz, ez da enplegu garbirik sortuko, baina langileen kopurua ez da berriro gutxituko.

Datorren biurtekorako aurreikusten diren datuetan, badaude beheranzko arriskuak oraindik. Garapen bidean dauden ekonomien moteltzea, AEBetan eta Europan bideratuko den politika fiskala, eta Europan ezarriko diren egiturazko erreformak ziurgabetasun handiko iturriak dira ekonomiaren etorkizunerako. Hala ere, krisia hasi zenetik lehenengo aldiz, zuzenketa gorantz egiteko aukerak ere badaude orain. Izan ere, munduko ekonomia gehiago hazteak eta kreditu eragiketa berriak ugaritzeak orain kalkulatu direnak baino hazkunde tasa handiagoak ekar ditzakete epealdi horretan.